

Arrue proiektua (1)

2014ko abenduan, Eusko Jaurlaritzak argitaratu zuen garrantzi handiko liburua (290 orrialde) hiru hizkuntzatan: "Ikasleak hiztun, 2011ko Arrue proiektua", "Comportamiento lingüístico del alumnado", "Pupil speaking". Ez da frantsesezko itzulpenik. Arrue proiektuaren txostena da, bai eta iruzkin luze bat ere, 23 hizkuntzalarik osatua.

Arrue proiektua ikerketa bat da ikasleen hizkuntza jokamoldeaz, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) egina, Lehen hezkuntzako 4. mailan (9-10 urte) eta Derrigorrezko bigarren hezkuntzako 2. mailan (13-14 urte), ikasle guziengan. Orotara 35.844 ikasle. Hemen lehen mailako CM1 et kolegioko Hirugarrenekoan adinak dira. Lankidezan Eusko Jaurlaritzak, Soziolinguistika klusterra. Helburua zen 2011ko eskola giroko hizkuntza erabileraren diagnostia egitea.

Arrue proiektua 3 urratsetan aurkeztuko dugu:

1. inkestako ikasleen ezaugarriak;
2. euskararen erabilera ikasle haueganik;
3. hizkuntzalari batzuren oharrak.

Ikertu ikaslegoaren ezaugarri nagusiak

Ama-hizkuntzak

Lehen hizkuntza %

	Euskara	Euskara eta Gaztelania	Gaztelania	Beste bat
10 urtekoak	20	14	62	4
14 urtekoak	20	15	60	5

Ama-hizkuntza eukara bakarrik edo gaztelaniarekin dutenen heina %34 da hamar urtetan eta %35 hamalau urtetan, gurasoak euskaldun direlarik %30. Iparraldean 16-24 urtekoetan %15ek euskara dute lehen hizkuntza, bakarrik edo frantsesarekin, gurasoak euskaldun direlarik %15.

Pedagogia ereduak

Hizkuntza ereduak EAEn (%)

	D eredu: murgilbidea	B eredu: elebiduna	A eredu: euskara ikasgai
10 urtekoak	64	29	7
14 urtekoak	59	28	13

D eredu, murgiltzearena da: irakaskuntza guzia euskaraz ematen da, gaztelania urratzez urrats sartuz, ikaskuntza klasikoaren moldean. 10 urtekoen bi herenak eta 14 urtekoen %60 hurbil eredu honetan daude, euskal erabileraren onetan.

B eredia elebitasunarena da, irakaskuntzaren erdia euskaraz ematen da eta beste erdia gaztelaniaz, hots astean 15 orenez erabiltzen da hizkuntza bakoitza. Ikasleen %30 baino gutxiago eredu honetan dabilta.

A eredia D ereduaren alderantzizkoa da: irakaskuntza guzia gaztelaniaz ematen da, euskara ikasgai delarik, astean 5 orenez. Gero eta ikasle gutiago eredu honetan dabil, ez baita biziki eraginkorra euskararen indarberritzeko.

Konparaketa Ipar Euskal Herriarekin

Euskararen irakaskuntza Iparraldean 2012an

	Seaska: murgilbidea	Hezkuntza elebiduna	Frantsesezko eredu elebakarra
Lehen maila = 25.117	2.098 = %8	6.894 = %27	16.125 = %64
CM1 = 3.171	225 = %7	692 = %22	2.254 = %71
Bigarren maila = 19.290	788 = %4	1.690 = % 9	16.812 = %87
Hirugarrena = 3.190	144 = %5	316 = %10	2.630 = %85

Seaska federazioak murgiltze eredia erabiltzen du bai eta Hezkuntza publiko eta pribatuko ama-eskola batzuk ere, esperientza gisa. Baina ikasle goaren gehiengo handia ez da hezkuntza elebidunaz baliatzen.

Hegoaldean murgilbidea da hedatuena (%64 edo 59) eta kasik ez da irakaskuntza elebakarrik. Iparraldean murgilbidea arrunt gutiengoan da, oraino Seaskako ikastetxeetan mugatzen baita. Ordutegi berdineko hezkuntza elebidunaz baliatzen dira lehen mailako %30 ikasle eta bigarren mailako %10 ikasle doi-doi. Ondorioz frantsesezko irakaskuntza elekarra da nagusi %64z lehen mailan eta %87z bigarren mailan. Han murgilbidea da nagusi (%64), hemen frantsesezko eredu elebakarra (%64 edo %87).

Ahozko gaitasun erlatiboa

Mintzatzeko errentasuna neurtzen da, hizkuntza batean beste bati konparatuz. Galdea : "Zein hizkuntzatan duzu errentasun handiena hitz egiteko?"

Hitz egiteko errentasuna (%)

	Euskaraz erretxago	Berdin bi hizkuntzetan	Gaztelaniaz erretxago
10 urtekoak	21	24	55
14 urtekoak	13	17	64

Gaztelaniaz hitz egiteko errentasuna da hedatuena bi ikasle multzoetan. Alabaina parekotasun bat gertatzen da gaztelaniazko errentasuna eta gaztelania lehen hizkuntza bakarraren artean, %60 inguru bi multzoetan.

Baina bitxi bada bitxi, euskaraz mintzatzeko errextasuna gatelaniaz bezain ongi edo hobeki, 9 puntuz jausten da adin talde zaharrenean. Euskaraz errexki mintzatzeko gaitasun ezberdinak uler daitezke pedagogia eraginkorragoaz multzo gazteenean: murgiltze gehiago euskaraz eta gutiago gatelanian.

Hizkuntzei buruzko atxikimendua

Ikasleak galdezkatu zituzten euskara, gatzelania eta igelesari buruzko atxikimenduaz. Frantsesko irakaskuntza berezirik ez da hegoaldeko erkidegoetan. Ikasiak dire hizkuntzari buruz galdea hau zen adibidez: "(Euskara) guztatzen zaizu?"

Ikasleek beren sendimendu kartsuasuna adierazteko hitz hauk erabili dituzte: "Asko, nahikoa, normal, guti, bat ere ez". Ikasleek nahiago dutenaren ideia xume bat emateagatik, metatzen ditugu "asko" eta "nahikoa" erantzun dutenen ehunekoak. Alabaina, euskaren erabilpen denbora kantifika daiteke ikasleen erantzunen arabera. Aldiz, askoz zailago da zenbaki batez neurtzea sendimenduen kartsutasuna.

"Asko gustatzen zait" eta "nahikoa gustatzen zait" erantzunen batuketa (%)

	Euskara	Gatzelania	Ingelesa
10 urtekoak	64	82	49
14 urtekoak	55	71	49

Gehiago dira 10 urtekoetan euskara eta gatzelaniari buruz beren atxikimendua adierazten dutenak, ezinez eta 14 urtekoetan, 10 punturen ezberdintasunez nonbait han.

Halere gatzelaniari buruzko atxikimendua euskarari buruzkoa baino askoz handiagoa da, 18 punduren ezberdintasunez gatzelaniaren alde 10 urtekoetan eta 16 punturekin 14 urtekoetan. Bi multzoetan ingelesak du kartsutasun ahulena pizten eta %49ko hein berdinean.

Hizkuntzen errextasuna edo zailtasunaren irudimena

Bi multzoetako ikasleak galdezkatu zituzten eskolako hiru hizkuntzen ikasteko errextasunaz edo zailtasunaz. Adibidez: "Nola iduritzen zaizu (euskara)?"

Erantzunak 5 mailatan eskainiak ziren "biziki errex" eta "biziki zail" irudimenen artean. Ikasleen irudimenak argi aurkezteko, "biziki errex" eta "errex" erantzunak bildu ditugu, hizkuntza eta multzo bakoitzarentzat.

"Biziki errex" eta "errex" erantzunen batuketa (%)

	Euskara	Gaztelania	Ingelesa
10 urtekoak	60	84	26
14 urtekoak	44	68	28

10 urtekoek 14 urtekoek baino errextasun gehiago badute euskara eta gaztelaniaren ikasteko. Pedagogia eraginkorragoa izan daiteke ezberdintasunaren zergatia. Bi multzoei iduri zaie gaztelania euskara baino ikasterretxago dela 24 punduren artekarekin aldi bakoitz. Bi multzoetan ikasleen laurden bat baino gehixagorentzat soilik, ingelesa hizkuntza errexa da.

Hizkuntzei buruzko sendimendu baikorrak, atxikimendua eta ikasteko errextasuna, itxuraz lehen hizkuntzari lotuak dira bai eta irakasbideari ere. Adibidez, euskara erakargarria eta errexa dela iduri zaie 10 urtekoek neurri handiagoan, 14 urtekoek baino gehiago erabiltzen baitute murgiltze ikasbidea.

Laburbilduz

Lehen hizkuntzaren proportzioa berdintsua da 10 eta 14 urtekoentzat: heren batentzat euskara bakarrik edo gaztelaniarekin, bi herenentzat gaztelania bakarrik. Egoera honen bidez uler genezake zergatik bi multzoei senditzen duten gaztelaniaren aldeko atxikimendua, ikasteko eta erabiltzeko errextasuna, euskarari konparatuz.

10 urtekoek D eredia (euskarazko murgilbidea) erabiltzen dute 14 urtekoek baino gehiago, hauek neurri handiagoan gaztelanian murgilduak direlarik (A eredian). Ezberdintasunak ahulak dira, %5 bi kasuetan. Aski ote da ulertzeko zergatik 10ek senditzen duten ahozko gaitasuna, atxikimendua eta errextasun irudimena euskararen alde, 14 urtekoek baino neurri handiagoan? Ohargarri da 10 urtekoek sendimendu baikor berdina dituztela gaztelaniaren alde. Ondorioa etara dezakegu ote 14 urtekoek ez dutela axolarik hizkuntzetaz?

Mugaz gainera egin dezakegun konparaketa bakarra da hegoaldean 10 urteko ikasleak euskaraz murgilduak direlarik %64, iparraldean hein berean irakaskuntza elebarrean dabilzala.

Datorren kronikan aztertuko dugu euskararen erabilera EAEko 10 eta 14 urteko ikasleengan, etxean, eskolan eta eskolatik kanpo.